

ANDRES NAGEL

Margolaria



«Herri honetako kulturak eman duen pertsonarik garrantzitsuen da»

«Herri honetako kulturen izenean zegoen pertsonarik garrantzitsuen hil da, berak egindako guztia utzi digu, eta zinez oso-oso garrantzitsua da berak egindakoa. Beti izan zen oso pertsona gertukoa, xarmagarria eta eskuragarria. Mundu guztiarekin berdin jokatzeko. Albistea edozein unetan gerta zitekeela jakin arren, oso kolpe gogorra izan da», adierazi zuen margolari donostiarra.

KOLDOBIKA JAUREGI

Eskultorea



«XX. mendeko euskal gizon unibertsalena izan da»

«XX. mendeko gizon unibertsalena izan da. Ibili naizen lekuetan beti ezagutzen zuten, eskultore eta euskaldun bezala, eta hori oso garrantzitsua da, nortasun bat ematen zigun. Ikaragarria da bere pisua arte munduan, baita arte mundutik kanpo ere, bere ideiak zirela eta. Nire ustez, gizon bakezalea zen. Ez dugu ahaztu behar ere Euskal Herriaren alde egindako lana, zentral nuklearren kontra, amnistiaren aldekoa...».

VICENTE LARREA

Eskultorea



«Arte garaikidea eta herrien idiosinkrasia lotu dituen artista garrantzitsuen da»

«Gure maisu handiena izan da. Niretzat Europan egon den pertsonarik garrantzitsuen izan da arte garaikidearen eta herrien idiosinkrasiaren arteko harremanaren defentsan, betiere inperio handiek ezarri nahi duten uniformizazioaren aurrean. Bere obran garbi ikusten da nola artisautza lanari arte lanaren kalitate handia eman dion. Berak beti eduki zuen garbi hemen bizi nahi zuela, eta horretan ere asmatu zuen».

ROMAN SUDUPE

Gipuzkoako diputatu nagusia



«Txillida mundura jalgi da, hizkuntza eta mugen gainetik»

«Ezaugarri bere-berekoa izan du Txillidak: jenio sortzailea izan da, oso bakanetan gertatzen den tasan berritzailea bereganatu izan du, eskulturen munduan argi berriak piztu ditu, eta hori ez da askotan gertatzen. Txillida mundura jalgi da, unibertsaltasuna bereganatu du, hizkuntza eta muga guztien gainetik, oztopo kultural edo nazional guztiez gaindi, jende xehearen aitorza sendoa eskuratu du. Horra hor haren garaipena».

TINDAYA. Proiektu polemikoena izan da

Hutsaren amets hustua

Kanarietako mendiaren barrua monumentu egiteko asmoak eragindako buruhaustea argitu gabe joan da eskulturgilea

Amagoia Mujika | DONOSTIA

Guantxeak erreztazera joaten ziren Tindaya mendira espainiarrak Kanaria Uharteetara iritsi aurretik (XV). Mendi sakratu hura munduko gizaki ororen bilgune izatea nahi zuen Eduardo Txillidak, gizaki guztiak berdinak egingo zituen hutsaren espazioa, mendia barrutik hustuta eguzkiari, ilargiari eta zeruertzari zabalik egongo zen tenplua. Baina amets hori bete ikusi gabe geratu da artista, azken urteotan amesgaiztoak eragin dizkion oztopoak gainditu gabe.

Harri bolkanikoen zazpi harrobi, Kanarietako Gobernuaren eta meatzarien arteko auziak eta Txillidaren proiektuaren kontrako ekologisten jarrerak ere Fuerteventurako Tindayaren parte dira, baita gobernua proiektua begi onez ikusi ostean mendi monumentalaren inguruan sortu nahi duen egitura turistikoa ere. Erromako Panteoia barruan sartzeko adina leku hustu nahi zuen artistak, baina proiektuaren kontrako koordinakunde ekologistaren salaketak frogatuko balira egitasmoa bertan behera utziko zuela esan zuen, azalpen horiek, ordea, ez zituela oraindik jaso gaineratuta. Gune turistikoarekin, berriz, ez zuen ezer jakin nahi, sortu nahi zuena ez baitzeturten bat jen-


BIDERAGARRITASUNA

Proiektua onartuko balitz artistaren heriotza ez dela oztopo izango adierazi du Kanarietako Gobernuak

dea beste modu batera erakartzeko interesekin. Zurrumbilo turistiko baten erdian ez zuen zentzurik gizakia eratzat artistak eraiki nahi zuen tenpluak.

Eduardo Txillidak bere sinaduraren antzeko trazoak zituzten guantxeen aztarnekin egin zuen topo Tindayan, proiektua egiteko Sizilia, Finlandia eta beste hainbat lekutako mendiak bisitatu ostean. Mendi magikotzat zuen, baina magia estaltzen zuten erasoak jasan behar izan zituen. Ekologista talde askoren ustez, naturarekiko errespetu gutxi erakutsi du artistak.

Egitasmoaren bideragarritasuna aztertzen ari diren bitartean hil da, baina argi berdea jaso balu artistaren heriotza ez dela oztopo izango adierazi berri du Juan Carlos Becerrak, Kanarietako Gobernuak Turismo eta Garraio sailburuak. Txillidaren ametsa errespetatuko dituen fundazioak egingo duela aurrera esan du, eta bere senitartekoek hartuko dutela artistaren lekukoa.



EGUNKARIA

BETE GABEKO DESIOA. Tindaya mendiaren proiektua ezin bete izana da Eduardo Txillidari bizitzan geratu zaion arantza bakarra. Proiektuaren inguruan sortutako polemikek atsekabetu zuten artista.

IRITZIA

Amaia Iturbide ■ IDAZLEA

Hari argiaren bidea

Eduardo Chillidaren eskulturgintzaren miresle isila izaki eta gaztetasunak opa ohi dituen ilusioak eta ausardiak hartaturik, 1991. urtean nire bigarren poema liburua, *Itzulbidea* deritzaiona, zela-eta, eskutitz bat idatzi nion azalerako irudiaren eskaera eginez. Berehala jaso nuen erantzuna, erantzun baiko-rra, eta bere etxera hurbiltzeko gonbidapena, gonbidapen zehatza, soila, grabitazio bat.

Horrela, egun batzuk barru Donostiako bidea, *Haizearen orrazia* dagoen hirirako bidea, hartu nuen, gogotsu, baina, era berean, zertxobait zalantzakor, arte mailan hain garrantzi handiko gizon batekin izango nintzelako. Atea zabaldu orduko beso zabalik hartu ninduen, landutako burdina bezain sendo eta malgu, eta horrek harridura sortu zidan ezinbestean, ez baininduen ezagutzen, edo, behintzat, hori us-te izan nuen orduan (geroxeago jakin izan dut kaligrafian aditua ere bazela). Etxeko egongela, eskultore batek ez bestek marraz dezakeen espazio zaindu hartan, Eduardoren garai desbedinetako eskulturek, giza-eskala askotarikoek, eta Donostiako argi zuri-grisek, alabastroa-

ren eta harriaren arteko tonuek, inguraturik, ordu betean luze jardun genuen kulturaz (poesia-arteaz-musikaz) eta Euskal Herriko egoeraz. Ondoa neukana gizon handi bat zela egiaztatu ahal izan nuen, apala, jakintsua, eta mugarik gabea, aurreiritzirik gabe lan egiten zuena. Collagez osaturiko elkarriketa haren ondoren aukeratu zuen *Itzulbidea* poema libururako azala: *Zuhaitz* saileko irudi bat eta hezur kolorea. Eta aitortu beharrean nago bete-betean asmatu zuela, daukan esanahiagatik, bizitzan jaso dudari opari ederrenetarikoa bat izan den liburu azal horrekin. Agurtzerakoan, bostekoa eman genion elkarri eta, atzera ere, esku erraldoi eta abegikorrean hartu ninduen. Berez mintzo diren bere eskultura horietako bat Eduardoren eskua, barrutik ateratako eskua, lurrezko eskua.

Zigortu gabeko zura, txori mistikoaren hegaldia, materiarekiko elkarriketa lirake, besteak beste, donostiarraren mezuak, legeak.

Halaxe da Eduardo Chillida gizona, halaxe bere eskulturgintza: jakintza anitzen topagune egia, eskuzabala.